

# OLTZA ZENDEAKO UDAL HAUR ESKOLA

## Eskolaren datuak

Eskolako tfnoa: 948321391  
Udaleko tfnoa: 948322068

Helbidea: Asiaingo errepidea, 10  
K.P. 31171 ORORBIA

Helbide elektronikoa:  
[ei-oltza-he@hotmail.com](mailto:ei-oltza-he@hotmail.com)

Dindaia Fundazioak kudeatuta.

Informazio gehiago  
[www.ayuntamientooltza.com](http://www.ayuntamientooltza.com)

## ORDUTEGIAK

### Sartzeko ordu tartea:

7:30etatik 9:30etara

### Irteera ordu tarreak:

Bazkaldu aurretik: 11:30etatik 12:00etara

Bazkaldu ondoren, siesta egin aurretik: 13:00etatik 13:30etara

Siesta egin ondoren: 14:30etatik 16:00etara

Bestelako orduetan eskolako atea itxita izango dira.

Haurrak, gehienez, egunean 8 orduko egonaldia egin dezake

Ordutegi hau aurreratzeko salbuespenak onar daitezke, beti ere hezitzaileekin adostuta.

## EGUTEGIA

2022/2023ko ikasturtea irailaren 6an hasiko da.

## PEDAGOGIA

Lehenik eta behin, eskola leku atsegina eta erakargarria izatea bilatzen dugu, non esperientzia aberatsak eta interesgarriak sor daitezken, bai eguneroko momentuetan (komunean, bazkarian, lo uneetan..) bai jolasean eta elkarren arteko harremanetan ere. Afektiboki eta emozionalki giro eta harreman lasaiak sortzeari lehentasuna eman nahi diogu, haurrak eskolan eroso eta pozik senti daitezken eta, ondorioz, esperimintatzeko eta jolasteko gogoia sortakien. Ongizate fisiko eta afektiboa beste guztiaren oinarria izango da.

Azken urteotan Budapesteko Lőczy Institutuko Emmi Pikler doktorearen pedagogian formatu gara. Jolas librean eta eguneroko jardueretan haurren interesak eta erritmoak errespetatzen ditugu. Bazkaltzeko orduan, haurrak jateko gogorik edo gustukoa ez badu, jatera animatuko dugu, baina inolaz ere ez dugu behartuko. Egunerokoen balore pedagogikoa zaindu nahi dugu, bestelako hezkuntza-proposamenez gain.

Haurren mailakako eta etengabeko autonomiarekin batera goaz hezitzaileok, bere heltze prozesua eta lanak "bakarrik" egiteko nahia behatuz. Hortaz, egunerokoetan haurren parte hartzea errazten eta animatzen saiatzen gara. Modu horretan, haurrak bere gaitasunak eta mugak ezagutzen eta bere buruan konfiantza hartzen joango da.





---

*“Haur bati bere kabuz ikas dezakeen zerbait irakastea alfer izateaz gain, kaltegarria ere izan daiteke. EMMI PIKLER*

---

Haurra jolasean, mugitzean, gorputzeko posturetan eta eguneroko jardueretan ahalik eta askeen izaten saiatzen gara. Ikasketa prozesuetan hezitzaileen esku-hartze zuzena ekidin nahi dugu, haurrak berak deskubritu, zuzendu, esperimentatzean gozatu eta *auto-erregulatu* ahal izateko. Haurrak, eta guk, emaitzak bezain beste prozesu bera baloratzea nahiko genuke. Honek esan nahi du protagonismoa eta bidearen norabidea haurrak markatzen dituela. Gorputzeko posturak praktikatzeko eta motrizitatean ez dugu inongo estimulazio zuzenik egiten. *Lorpenetara* heltzea ez dugu azkartu nahi. Espazioa eta materiala egokiak aukeratzean eta prestatzean datza helduon eginbeharra, haurraren ondoan ikasketa prozesua jarraitzeaz gain: ahoz goratik ahoz beherara buelta ematea, haurra bera bakarrik esertzen ikastea, lau hankatan ibiltzeko postura praktikatzea...). Haurra jaiotzen den unetik dituen gaitasun horietan erabateko konfiantza eta errespetua praktikatzeko dugu

Hautzaroaren onberatasunean sinesten dugu eta elkarbizitzarako, higiene eta gure jendarteko ohitura diren oinarriko arau batzuk barneratzen laguntzen diegu. Haurrekiko harremanak eta haien beharrak asetzea banan-banakoa egin nahi dugu, eta ahal den neurrian horrela egingo dugu, haurra pertsonatzat hartu eta errespetatu nahi baitugu.

Eskolan *erreferente* bidez lan egiten dugu, hau da, eguneko interakzio hurbileneko momentuetan (komunean, bazkarian, lo egiteko orduan...) hezitzaile zehatz bat haur taldetxo bakoitzaren erreferentzia nagusia izango da.



Familiekiko harremanari dagokionez, hauen parte-hartze eta laguntza ezinbestekoa ikusten dugu, bai bere seme-alabarentzat baita eskola mailan ere.

## ESKOLAKO OINARRIZKO ARAUAK

### OSASUN ARAZOAK ESKOLAN. *Haurrak gaixorik daudenean ezin dira eskolara etorri.*

Ezin izango dira etorri hauetako sintomaren bat dutenean:

- Hotzeriak eragindakoak: eztul bizia, kongestio handia, sukarra.
- Hesteetako edo gastrikoak: gastroenteritisa, goitika edo beherako egitea, sukarra, mina...
- Konjuntibitisa
- Zorriak (tratamendua egin ondoren, eskolara bueltatu ahalko da haurra)
- Kutsakorra den azaleko edozein gaitz.
- Haurraren ongizatea nabarmen gutxitzen duen edozein gaitz.
- Kutsakorra den beste edozein gaixotasun edo gaitz.

Familiak haurra gaixorik izanik eskolan ondorioak areagotzen direla ulertu behar duzue, beste haurrak eta, batzuetan, hezitzaileak kutsa ditzake eta Eskolan ditugun haur kopuruak eta erritmoak kontuan hartuta, haurra ezingo dugu behar bezala zaindu.

Haurra, eskolan izanik, ongi ez dagoenean familia deituko dugu, haurra eraman dezan. Familiari galdetzen ez badiogu, ez dugu minarako edo sukarrerako botikarik emango. Eskolan antibiotikorik ez dugu emango. Ez ahaztu ezinbestekoa dela guraso edo senideren bat beti telefonoz hitz egin ahal izatea. Telefono berriren bat edo lantokiarena izanez gero, guri horren berri eman.

Gure iritzian haurra eskola etortzeko moduan ez egon arren familiak ekartzen duenean, pediateraren ziurtagiria eman beharko diguzue. Agiriak gaixotasun edo gaitza kutsakorra ez dela eta haurra eskolara etor daitekeela jaso beharko ditu.

Eskolan istripurik izatekotan, larritasunaren arabera joko dugu. Haurra osasun etxera eramatea beharrezkoa ikusten badugu, familiari egoeraren berri emango diogu eta honek eraman ala ez erabakiko du. Posible bada, familiak berak eramango du haurra osasun etxera. Anbulantzia bidez egin behar bada, familiari esango diogu osasun zentroan elkartzeko.

#### **ETXETIK EKARRITAKO JANARIA.**

Eskolarako bidean zerbait jaten ari baziren, gelan sartu aurretik bukatu edo utzi beharko dute. Kontuan izan oso ohikoa dela alergia duen haurren bat eskolan izatea eta edozein elikagai arriskutsua izan daitekeela. Kanpoaldeko takiletan janaria ere ez utzi, mesedez.

#### **JANTZIAK ETA ETXETIK EKARRITAKO OBJEKTUAK.**

Haurrak janzen duen arropak eta beharrezkoa izanez gero aldatu ahal izatekoak haurraren izena jarrita izan beharko dute. Bestela, beste haurren arropekin nahastea oso erraza da.

Etxetik ekarritako jostailuek askotan liskarrak eragiten dituzte, besteak beste, beste utzi nahiko ez dietelako. Galtzeko eta izorratzeko arriskua ere bada. Beraz, etxetik jostailuak eta objektuak ez ekartzeko eskatzen dizuegu.

Egoera ezberdina izango litzateke haurraren objektu pertsonala edo berezia ekartzea. Egunero objektu-jostailu-panpina bera ekartzen duenean eta horrekin lotura berezia duenean, oso lagungarria izan daiteke haurra lasaitzeko eta beste haurrek berehala ikasten ohi dute norena den eta errespetatu behar dugula. Objektu berezi hori mina hartzen duenean, triste edo beldur denean, goizeko agurretan, lo egiteko orduan... eskatzen ohi da. Eskolako lehenengo egunetan ere oso lagungarria izaten da.

## HAUR HEZKUNTZAREN LEHENGO ZIKLOAREN ARAUTEGIA.

---

- *Hezkuntzaren Lege Organikoa, 2006/2 maiatzaren 3koa.*
  - *2007/28 Foru Dekretua, martxoaren 26koa: zentroen gutxieneko betekizunak eta hezkuntza edukiak.*
  - *3/2022 Ebazpena, urtarrilaren 18koa: 2022/2023 matrikulazio prozedura.*
  - *12/2022 Foru Agindua, otsailaren 7koa: 2022/2023 ikasturterako tarifak.*
- 

Arautegi honetatik nabarmendu nahi dugun informazio praktikoa:

- Ezarritako epean gauzatzen ez diren matrikulak itxaron zerrendako hurrengo familiei eskainiko zaizkie.
- **Eszedentzia:** baremoan eszedentzia komunikazioa aurkeztu zuten familiek, ikasturtearen hasieratik hilabete eta erdira lanean hasi dutela enpresa ziurtagiria edo nominaren bitartez frogatu beharko dute. Ezarritako epean lanean hasi direla egiaztatzen ez bada, baremoan, dagokion atalean, emandako puntuak kendu.
- Matrikula egiteak ekartzen du 10,6 hilekoak ordaintzeko konpromisoak hartzea. Matrikulatzeko ikasturtearen azken hilabeteko eskolatzearen ordainketa, 2023ko uztailakoa, aurreratuko da eta hileroko ehuneko 6koa izango da. Irailean (edo matrikula egitean), bakarrik eskolatzeari ordainduko da, eta urrian, eskolatzeari, jantokia gehi irailaren jantokiaren portzentajea.
- Urteko *per capita* errentatzat hartuko da zatiketa honetatik ateratzen den zenbatekoa: 2020ko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergako zerga-oinarria (507, 8810, 8808, 529 ken 708, 511, 822, 578 edo 576+577) zati familia unitateko kide guztien kopurua, ikaspostua eskatzaileak barne.
- Ezarritako epean 2021ko errenta aitortzea edo diru-sarreraren ziurtagiria ez aurkeztekotan, ikasturte osoan zehar kuotarik altuena kobratuko da.
- Oltzako haur eskolan matrikulatuak dituzten bi seme-alaben familiek bigarren seme-alabatik aurrera eskolatzeko tarifetan %50eko murrizketa izango dute. Jantokiko tarifetan bigarren seme-alabatik aurrera gutxieneko tarifa ordainduko dute.
- Matrikulak, ikasturtea hasita: tarifak haurra eskolan hasten den unetik ordainduko dira eta lehenengo hilabete horretan familiari proportzioan dagokiona ordainduko da.
- Matrikulan jantokia aukeratu bada, jantokiko hilabeteko osoak ordaindu beharko da, zerbitzua egunero erabili ez arren. Salbuespenak:
  1. Erabiltzailearen menpetik eta bere borondatek kanpo dauden arrazoiak.
  2. Eskolan egokitzeko garaia (ikasturte hasierako asteak).
  3. Elkarren segidako 15 egun natural baino gehiagoko hutsegite justifikatuak eta aurretik esandakoak.

Deskribatutako egoeretan ohiko hilabetekoari menu edo *catering*-aren diru-kostua kenduko da.

- Jantokia egun solteetan erabiltzeagatik eguneko tarifa: 5 euro.
- Ikasturtea hasita, jantokian hasi (hau da, haurraren eskola-ordutegia aldatu) modu iraunkorrean, justifikatutako arrazoiengatik eta Hezkuntza Departamentuak onartu ondoren: tarifen arautegian ezarritako tarifen artean, familiaren errentari dagokiona.
- Familiak ekartzen duen esnea haurrak besterik ez jaten duelako, aipatutako epean jantokiaren kuota ez dute ordaindu beharko.
- Ikasturtea hasita, lehenengo hamabost egun naturaletan eskolan hasi ez den haurrari edo, eskolan behin hasita, justifikatu gabe hamabost egun naturaletan zehar etorri ez den haurrari **derrigorrezko baja** emango zaio. Edo bi hileko kuota ordaintzen ez dutenei.

Hau gertatzekotan, udalak haurraren baja idatziz jakinaraziko dio familiari eta 15 egunetara gauzatuko da baja. Familiak baja gauzatuko den eguna arteko kuota gehi hileko oso bat, sortutako gastuengatik, ordaindu beharko du. Udalak matrikulazio epean ordaintzen den fidantza ez du itzuliko.

- Ikasturtean zehar sor daitezkeen **borondatezko bajak** gauzatu baino 15 egun lehenago idatziz jakinarazi behar zaio eskolako zuzendaritzari. Familiak baja gauzatu arteko kuota ordaindu beharko du, hau da, notifikazioa jaso eta hurrengo 15 egun arte, gehi hileko oso bat sortutako gastuengatik gehi fidantza. Bajaren arrazoa justifikagarria denean (haurraren gaixotasuna, bizitokiaren aldaketa, langabezia edo gerora sortutako estutasun ekonomikoa, edo Udalak aurreko arrazoiekin antzekotasuna duten bestelako egoerak aintzat har ditzakenak) familiak sortutako gastuengatik kuota ez du ordainduko eta matrikulazio epean ordaindu duen fidantza berreskuratuko du.

#### Per capita errentaren araberako tarifak

Per capita errentaren tarteak	Eskolatzea	+ Jantokia	/	gurasobakar familiak	
15.000tik baino gehiago	173	+ 95	/	154	+ 84
12.400,01tik 15.000ora	144	+ 95	/	127	+ 84
10.700,01etik 12.400ora	108	+ 95	/	95	+ 84
9.300,01etik 10.700ora	79	+ 95	/	69	+ 84
7.980,01etik 9.300ora	57	+ 84	/	0	+ 66
6.650,01etik 7.980ora	35	+ 84	/	0	+ 66
5.500,1etik 6.650ora	0	+ 66	/	0	+ 52
4.500,01etik 5.500ora	0	+ 58	/	0	+ 42
3350,01etik 4.500ora	0	+ 56	/	0	+ 32
3.350tik edo gutxiago	0	+ 52	/	0	+ 25

## **2022-2023 IKASTURTERAKO BERRIKUNTZAK**

- Doakotasuna, urtean 6.650,01 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak dituzten familientzat. Guraso bakarreko familietan, 9.300,01 euro baino gutxiago urtean.
- Ezabatu egiten da Udal titularrari dagokion moduluaren ehunekoaren ordainketa egoitza-udalak edo familiak berak kobratzeko aukera.
- Hezkuntza Sailak bere gain hartuko du bere Udalerrikoa ez den H.E. batean matrikulatzen den eta kuotarik ez duen haur bati dagokion jantokiko ordainketa, Haur Eskolarik ez dagoelako edo plazarik ez dagoelako.
- Kuotarik ez duten familiei, kuota bat kobratuko zaie matrikula-kontzeptu gisa, eta ikasturtearen hasieran itzuliko zaie.